

# **SIN PAN NI LIBERTAD**

**La recomposición de la femineidad en  
el antifranquismo vasco**

Resumen de la investigación.

María Losada Urigüen

XII Beca Koldo Mitxelena.

**1 Ikerketaren aurkezpena**

**2 Helburuak, gaitasunak eta giza proiektzioa**

**3 Publikazio eskema**

**4 Ikerketa-espazio**

**5 Lan espazioak**

**6 Aisialdi-espazioak**

**7 Espiritualtasun espazioa**

**8 Erresistentzia -espazioa**

## 1 Ikerketaren aurkezpena

*Sin pan ni libertad* emakumetasunaren birmoldatzeari buruzko ikerketa da euskal antifrankismoan. Liburua 2014an Maria Losada Uriguenek Bizkaiko Ikerketa historikoko elkartarako egindako lana da, eta Koldo Mitxelena XII ikerketa- Bekaren esparruan burutu zen.

Orain arte, Euskadiko garai frankistaren historiaren gainean aritutakoa ez da nahikoa izan. Alabaina, esan dezakegu euskal antifrankismoaren historiari buruzko lanak kalitate handikoak direla, eta hori, bereziki, horrela dela euskal nazionalismo eta langile mugimenduen kasuetan.

Hasieran, historia sozial klasikoaren ikuspegitik ikasi zen erakunde antifrankisten historia. Geroago, historia soziokulturalaren ikuspuntu berriak abiapuntu hartuz, ikerlariak lagunetan<sup>1</sup> jarri zuten arreta. Izan ere, erakundeen gainean idatzitako informazioa ez ezik, lagunak jokoera ere kontuan hartu zuten historia kontatzeko. Alicia Altedek eta Abdón Mateosek<sup>2</sup> iragarri zuten moduan, ahozko historia, tokian tokiko arloan kokatzeko orduan, aliatu aparta da. Hor, maila lokalean, hala militantziaren muina, nola klandestinitatean jardutako antifrankismoaren politikak aurkitzen ziren. Diktaduran zehar, erregimenaren aurkako edozein jarduera politika debekatuta zegoen. Horrela izanik, klandestinitatean aritu behar izaten zuten. Erregimenarekin lotutako gabeko politikak eta sindikatuak galarazita izan ziren, disidenteen lokalei giltza ematen zieten, ondasunak konfiskatzen zizkieten, euren buruzagiak baita militante historikoak ere hil, espetxeratu edo erbesteratu egiten zituzten.

Lehen frankismoaren testuinguruan, artean, gerra ondoko giroak herri bereko bizilagunaren arteko salaketei bide ematen zien. Badakigu salaketa guztiek oinarri sendorik ez zutela eta, askotan horiek egitearen arrazoiak gorrotoa, jelsia eta mendekua

<sup>1</sup> José Antonio Pérezek doktore-tesia adibide bezala jar dezakegu doctoral de: *Los años del acero. La transformación del mundo laboral en el área industrial del Gran Bilbao (1958-1977). Trabajadores, convenios y conflictos*, Biblioteca Nueva, Madrid, 2001.

<sup>2</sup> “Problemas de método en la investigación de la oposición al franquismo. La utilización del testimonio oral”, *Espacio, Tiempo y forma. Serie V*, Historia Contemporánea, nº 3, 1990.

baino ez zirela. Hala eta guztiz ere, salaketak saihesteko antifrankistek gizarte-espazioetan eta sare informaletan baino ez zituzten garatzen euren jarduerak. Leku pribatuak edo guztiz publikoak ez ziren ezkutaleku eta tribuna bilakatzen ziren. Erakunde antifrankistei dagokienez, asko ikasi da: batzarrak Concha-ko hondartzan zehar paseatu bitartean egiten ziren; mitinak gazte katolikoko bileretan edo Pagasarriara joaten ziren dantza-taldeetan ezkututzen ziren; eta grebak ogitarteko jateko atsedendian erabakitzen ziren. Frankismoaren kontrako identitatea eta balio demokratikoak heldarazteko era ikasteko egunerokotasunari begirada ematea beharrezkoa izan zen. Haatik, ikuspegi honetara hurbilagoak diren ikerketek ere, emakumeek frankismoaren aurkako euskal oposizioan zeukaten papera alde batera utzi ohi dute eta horrela egiten ez dutenean, gizonengan zentratutako bigarren mailako kontua izango balitz bezala hartzen zen.

Euskadin dauzkagun emakume antifrankistei buruzko lanak urriak izan arren<sup>3</sup>, frankismoaren garaian bizi ziren euskadiko emakumeen historia ikasten duten zenbait monografia, baita ikerketa ere, badaude. Ikerketa hasieran, José Antonio Pérez Pérez zen liburua, *Los espejos de la memoria*<sup>4</sup>, non Basauriko emakumeen historia kontatu digun, hartu genuen abiapuntu. Bere lanaren bitartez, ahozko historioaz baliatuz, frankismoan bizi ziren emakumeen eguneroko bizitzaren historiara hurbildu zaigu.

Estudio-laguna definitzeko orduan, zehaztasun kopururik handiena aintzat hartu nahi dugu eta horretarako, lehenengo eta behin, diktaduran zeuden kutura demokratikari buruzko ezaugarri komun minimoak zehaztu ditugu<sup>5</sup>. *Sin pan ni libertad* emakume antifrankistaren gaineko historia hedatzearen ideiarekin sortu zen, baina ez estereotipiko ikuspuntutik begira, zeharkako ikuspuntutik baino. Nahiz eta hainbat berriemailek erakunde batzuen barruan jarduera militante garrantzitsua izan, horiekin batera beste biografia batzuk, itxuraz urratzaile gutxiago, bildu nahi genituen. Alderdi

<sup>3</sup> Alor honetako ekarpen berrietako bat da: SOLÉ, Belén eta DÍAZ, Beatriz, *Era más la miseria que el miedo. Mujeres y Franquismo en el Gran Bilbao: Represión y Resistencias*, Elkasko, Bilbao, 2014.

<sup>4</sup> PÉREZ PÉREZ, José Antonio, *Los espejos de la memoria, historia oral de las mujeres de Basauri, 1937-2003*, Basauriko Berdintasun Saila, 2004.

<sup>5</sup> Euskal antifrankismoaren kultura demokratikoari buruzko ikerketa sozialismoaren ikuspuntutik: LÓPEZ ROMO, Raúl, LOSADA URIGÜEN, María eta CARNICERO HERREROS, Carlos, *Rojo esperanza. Los socialistas vascos contra el franquismo*, Ikusager, Vitoria, 2013.

eta sindikatuetatik urrundu eta pairamentsu eta proposito eta *agency* gabeko emakume-emaztearen ideia gainditu nahi genuen. Pentsatu genuen eredu honen onarpena hauste-estrategia ere izan zitekeela. Hauste-estrategia honen adibideak dira: emakume batzuk ezkontuta izateak ematen zituzten abantailez baliatzen zirela euren berezko helburuak lortu ahal izateko; edo beste batzuk etxeko finantzen arduradun nagusiak zirela. Amak izan zirenek emazte eta amak izatearen arduradunak ematen zien botereaz gozatu zuten eta horri esker hurrengo belaunaldiei balioak transmititu ahal izan zizkieten. Etxea gure mendebaldeko gizarte garaikidearen eremu pribatu nagusia da. Beraz, leku perfektua da diskurtso disidenteak ezkutatzeko, debekatutako errituak, hala nola *Primero de Mayo*, Aberri Eguna edo empoderamientoarekin lotutako jokabideak (osaun sexualari edo ugalketari dagozkionak) intimitatean ospatzeko.

Esan dugu gure berriemaileek balio demokratiko orokorrenekin bat etorri behar zutela. Identitate demokratikoa bi bidetatik etor zitekeen: materiagabeko herentziagatik, hots, familiaren bitartez transmititutakoagatik edo gaztaroan edo helduaroan bizi-aukera harteagatik. Gure berriemaileen kasuan identitate berbera dute. Haiek era batean edo bestean, gerra zibilen galtzaile bandoan zeuden. Eurek, gutxienez, errepresio bikoitza jasan zuten; batetik gizarte patriarkal batean emakumeak izateagatik eta bestetik, gerra ez gainditzeagatik. Eragile bi horiei beste batzuk ere gehi zekizkien, esate baterako, herrigunean bizitzea -han hirietan baino zailagoa zen, hala senitartearen ideologia nola norberarena besteek ez ezagutzea- jatorri ekonomiko baxua izatea edo kanpotik etorritakoaren identitatea jakitea. Etiketa horiek guztiek kontraesanetan erortzeko beharrik gabe pertsona bera deskribitu ahal dute, zeren eta kategoria sozialak aldakorak, era askotarikoak eta harremanekin lotutakoak diren.

Kronologia dagokionez, erabaki genuen gure ikerketa kokatzea gerra zibilaren bukaeraren (1936-1937 an lurralde historikoaren arabera) eta Transtizio politikaren hasieraren artean (Lehen Eusko Kontseilu Nagusiaren garaian 1977an edo Eusko Kontseilu Nagusian 1978an). Nolanahi ere, gure berriemaileen bizi-historiarekin koherentziari eusteko, ahalik eta malguenak izaten ahalhegindu gara. Liburuan zehar etengabe bi belaunaldiko existentziari aipamena egiten diogu. Bata lehen frankismoaren

zehar bizi zena eta bestea 60 eta 70 bitarteko urteetan. Erdiegituratutako elkarrizketetan eta mikrobiografiatan oinarritutako metodologiari esker, nahiz eta era zuzenean ez lortu, batik bat, alaben lekukotasunen bitartez aurreko belaunaldiaren ezaguera izan dugu<sup>6</sup>.

Ikerkuntzako marko espazialari dagokionez, lurralde historikoen gaineko lanari lehenetsua eman diogu. Lurralde horietan, bereziki, oinarritu dugu, errepresioa errepikariago eta errukigabeagoa izan zelako. Batez ere, Bilbo handian eta Gipuzkoan arreta handia jarri dugu. Ezin izan dugulako ahaztu euskadiko ezaugarri nabarmena mestizajea dela. Bolada hark, gure ikerketarako aukeratu dugunak, egundoko emigrazioa jasan zuen. Lehen unean, fenomeno hori errepresio frankistaren ihesaren ondorioa izan zen, baina industriak langileak behar zituen neurrian, lurralde horiek beste komunitate batzuei, (adibidez, Gaztelari, Leoni, Galiziar) abegi egin zieten. Erkidegoen arteko interakzioak- edo interakziorik ezak- erkidegoen arteko distantzia kulturala argi erakusten zuen (horren gainean testuan zehar arituko gara hainbatetan). Emigrazio-prozesuaren gogortasunari sare familiarren bidez eta adiskidetasunaren bidez aurre egiten zion. Aitzindariak sozial eta ekonomikoki aurrera egiteko aukeraren gaineko berria ematen zuten euren herrietan, eta beste gazte batzuei hirietara baita herrietara ere joatera laguntzen zieten. Askotan emigratzaile berri horiek apopilo-etxeetan non emakume foraneak arduradunak ziren ostatu hartzen zuten. Lan hori ez zen eksklusiboa. Emakume horiek ez ezik alargunek eta ezkongabeko amek<sup>7</sup> ere horretan jarduten zuten.

Beste erkide batzuekiko kontaktuek, egunerokotasun bizitzarekin lotutako aspekturen batzuen alde erakustean, gure lana aberastu zuten. Adibidez, lekukotasun horien bitartez, azterta dezakegu emakumeek etxetresna elektrikorik eskura zutela ala ez, eta horrek emakumeen arteko harremanetan zein eragina zuen; sexu ezberdin gazteek zeuzkaten harremanak nolakoak ziren; heziketaren aldeak nolakoak ziren; gerraren kontukizunak, eta abar. Gai horiei guztiei dagokienez, esan beharra dago hemen geratzen ziren emakumeek ez ezik, gerran zehar edo gerra ostean beste erkidego

---

<sup>6</sup> Halaber, duela urte batzuk beste ikertzaile batzuek egindako ikerketekin lan egiteko aukera izan dugu: honako hauekin: Elkasko elkareren funtsak, Bizkaiko Esperientziak Gelak (EHU) Euskal Herriko Unibertsitatea, Mario Onaindia Fundazioa edo Raúl López Romoren funts pertsonalak.

<sup>7</sup> Kasu zehatz batzuetan horiekin elkartzen ziren prostituzio-etxeen *madame-ak*.

batzuetara eta kanpora (Frantziara, Errusiara, Venezuelara) joandakoek ere gauza bera bizi zutela.

Gure ikerketa garatzeko hainbat motatako iturburuak erabili behar izan ditugu, baina orain arte esan dugun bezala, ahozko iturburuak funtsezkoak izan dira. Lehen aipatu dugu batzuetan aukera bakarra dela frankismoari aurre egiteko jarduerak klandestinitatean burutzen zituztelako Baina, ahozko iturburuak erreprezio sexualareki<sup>8</sup> lotutako arazoak ezagutzeko ere baliagarriak badira. Errepresio-errepertorioaren barruan emakumeei bakarrik dagozkien hainbat motatako zigorrak daude. Eta Mary Nashen<sup>9</sup> arabera, ikerketa egitean aurkitzen dugun arazoa da emakumeek erakusten duten portaera sotila. Izan ere, horrelako portaerak esfera pribatua eta era orokorrean gertatzen dira eta askotan, emakume guztiei erasaten diete. Asko, sozialki ez ezik, legalki ere zapalduta sentitzen dira. Horregatik guztiagatik oso zaila da ikertzailaren lana, biktimen lotsari, ukapenari eta justifikazioari aurre egin behar izateagatik. Azken bi jarrera horiek eraso baten aurreko defentsa bezala -ez nahitaez sexuala- agertzen dira eta haiek desmontatzen saiatzea mingarria baita kaltegarria ere izan liteke.

Ikerketaren hasieran, gure helburu nagusia zen emakume antifrankistaren bi belaunaldiari ahotsa ematea. Biak ala biak, militantzia politikoarekin, edo, militantzia politikorik gabe, bere erabaki-eremutik, zein erregimenaren aurkako erakundeetatik, erresistentziako protagonistak izan ziren. Emakume horiek bere portaera urratzaileen bidez, batetik, duintasuna berreskuratu nahi zuten eta bestetik, neskak izango balira bezala tratatzen zituzten sistematik ihes egin nahi zuten.

---

<sup>8</sup> Irene Abad, "Las dimensiones de la "represión sexual" durante la dictadura franquista", *Revista de historia Jerónimo Zurita*, nº 84, 2009.

<sup>9</sup> NASH, Mary (ed.), *Represión, resistencias, memorias. Las mujeres bajo la dictadura franquista*, Comares, Granada, 2013.

## 2 Helburuak, gaitasunak eta giza proiektzioa

Hasieratik, proiektu honen asmoa izan zen lan honetatik sortutako materialak (hots, liburua, mikrobiografiak, elkarrizketak eta transkripzioen laburpenak) oinarrizko material bezala erabiltzea Euskadiko emakume frankistaren historia ikasi ahal izateko ikastetxeetan eta beste eremu batzuetan. Horrexegatik azaldu dugun testuak oso izaera didaktikoa du eta bere eskema argia, dibulgotzailea eta zeharkakoa da. Proiektuaren lehenengo aurkezpenean, aldiaren aspektu zehatzak lantzeko, lan historiografikoaren berezko irizpideetara erantzutea ez ezik, irakasleek eta ikasleek begiratu ahal izatea ere izan da helburu nagusietariko bat. Izan ere, Euskadin ez dago gai honen gaineko material didaktiko askorik eta konturatu gara hainbat eremutako irakasleek (batxilergo irakasleek, helduentzako zentrokoek, emakume taldeek, elkarte sozial eta politikoez...) baterako hezkuntzaren ikuspuntutik aztertutako lanak behar dituztela.

*Sin pan ni libertad* liburuaren bitartez, Historia zabaldu eta honako hezkuntzabalioa bultzatu nahi dugu, baina horrek ez du esan behar gertaera-tratamendua txarragoa edo objektibitatea gutxiagoa izango denik. Normalean, komunikazioaren arloan, ikastetxe eta elkarteetako hezkuntza-proiektuek elkarren antzeko gabeziak erakusten dituzte. Adibidez, genero-estereotipoekin apurtzeko erreferente femenino lokal edo eskualdekorik eza nabarmena da. Berriz, “Euskadi legalaren” eta “Euskadi errearen” arteko distantzia ahazten da eta testu legal eta soziokulturalak kritika gabeko eran aurkezteko joera dago. Sarritan, eredu hegemoniko apurketak alde batera uzten dira. Horren ondorioz, batetik, ikasleek horrelako apurketak existitu ez zirela uste dute; bestetik, momentu hartan bizi ziren emakumeek Historia honekin ez dute bat egiten nahiz eta neurri batean berea izan.

Plano praktikoa, esan dezakegu aurreiritzi sexistak –beste hainbeste batzuk bezala– plano historiografikoan hezkuntza-planoan baino lehenago gainditzen direla. Pentsamendu-ildo berri hauek ikasgeletan sartu ahal izateko, irizpide interpretatzailea aldatzeaz gain (hots, emakumeak Historian sartzeaz gain), diskurtzoa ere aldatzea ezinbestekoa da erakargarria eta irakurle guztietarako eskuragarria izateko. Gure lanean aurreiritzi sexistei aurka egiteko orduan, hainbat motatako baliabideak erabili ditugu.



Alde batetik, “hizkuntzaren joera” kontuari jaramon egitea garrantzitsua iruditzen zaigu. Hau garrantzitsua da, bereziki, gaztelaniaz idatzitako testuetan, non behin eta berriz hitz egitean generoa markatzen den, baina genero neutroa ere etengabeko eran erabiltzen den. Horrela izanik, azkenean irakurleak barneratzen du gizonezko generoari buruz baino ez dela hitz egiten. Zentzu honetan, zirkuitu historiagrafikitik kanpoko emakumearen ikusezintasunaren kontua aipa dezakegu. Testuliburu gehienek nekez kontuan hartzen dute emakumeek Historian zehar jokatu duten papera eta egiten dutenean, errealtate lokaletik oso urrundako pertsona famatuak baino ez dituzte aipatzen. Beste aukera batzuetan, oso era orokorrean egiten da eta eredu posible den bakarra hegemonikoa dela onartzen da.

Ido horretatik, desorekaren kontua ere aipatu behar dugu. Historia eskema simpletara murriztean, azkenean, ikasleek erabiltzen dituzten ikasgaietan eredu erreferentzialetik kanpoko aukerak baztertuta daude edo adierazpen gutxiagoak dira. Era berean, familia-ereduarekin egiten duten bezala, eredu irrealak baita bakarrak ere aurkezten dituzte. Baina, liburuan aztertu ditugun lekukotasunen arabera, estatuak babesten zuen propaganda, hau da, aita, ama eta seme-alaben osatutako familiak, gehiengoa izan zitekeen baina ez zen eredu bakarra. Ez zen ere emakume askoren desioa, eta oso bereziki ez zen horrela izan guk ikasitako emakume antifrankisten kasuan. Material arazoekin amaitzeko, normalean testuliburuetan emakumearen irudia era zatikatuan azaltzen da; hau da, askotan, era estereotipatu eta bakarrean agertzen dira eta horrez gain, Historia osoan, non gizonak protagonistak diren, emakumeak interes gutxikoak, periferikoak dira.

*Sin pan ni libertad* balioen hezkuntza eta bakerako hezkuntza nerabeekin lantzeko oso tresna interesgarria da. Liburu honetan sexudun errepresioa biktimaren ikuspuntutik zein asaldatze eta haustuaren ikuspuntutik tratatzen da. Bere azalpena aurreko belaunaldiei begira erakargarria ere izan daitekeela uste dugu. Batetik, iragana ulertzeko eta bizi izan ez zutenei iragana ulertarazteko balio du (esan beharra dago lagun batzuk adinagatik eta beste lagun batzuen inguru sozial eta kulturala guk tratatutakoa bezalakoa ez izateagatik, ez zituztela bizi liburuan azaldutako gertaerak); bestetik, lehena bizi izan zutenetzat autoazterketa eta oroimenaren aldarrikapena izan daiteke.

Balio-hezkuntzaren oinarrietako bat interkultural kontzeptuan aurkitzen da. Kontzeptu hau talde kultural handien arteko trukea baino zerbait gehiago bezala ulertu behar da. Antropologia sinbolikotik Clifford Geertz-ek eskaintzen digun kultura definitzioari arreta jartzen badiogu, aurkitzen dugun alorra etorkin eta bertako populazioen arteko harreman kulturaletatik sortu dena baino askoz zabalagoa eta aberatsa da. Zentzu horretan, sentsibilitate horiek guztiak, harrera-populazio batena eta etorkin batena, jasotzen saiatu gara, eta horiekin batera, hainbat kultura politikoen arteko distantzia, hiritzen eta baserriaren artekoa nazionalistak, obreristak, etab. aintzat hartu ditugu. Gure kontaketa kulturarteko elkarriketako espazio edo elkarrekiko ezagutzeko espazio izan dadila saiatu gara.

Lehen haurtzarotik, gizakiak estereotipo-sorrera erabiltzen du. Horrexegatik eta hezkuntza-sisteman bultzatzeagatik ohiko jokaera bihurtu da. Bere oinarrizko funtzioa ulertzen eta giro soziala iragartzen saiatzea da. Pertsona, giza talde, edo sineste-sistemen ezaugarri guztien sailkapenak egitea zaila denez, gizakiok kategoriak eta prozesu sozialak sortzen ditugu eta hori egiteko ekonomia kognitiboari arreta jartzen diogu. Ikusi dugunez gero, bere funtzioa ez da negatiboa hasiera batean. Baina, estereotipoak errealtatea deformatzen duenean, eta kulturen arteko elkarriketa zailtzen edo eragozten duenean arazoa sortzen da. Momentu horretan estereotipo aurreiritziaren justifikazio eta oinarri bilakatzen da. Fenomeno hau, momentu horretan, afektibo-mailan aurkitzen da eta pauso bat aurrerago, jokabide-mailan, diskriminazioa sortzen da.

*Sin pan ni libertad* pertsonaren aldeko ikuspegitik abiatzen da. Soziokultural historiak, batik bat, genero-historiari dagokionez, hainbat motatako jarrerak eta jokabide kulturalak epaitu gabe deskriba ditzake; horri esker, bere irakurleek oso bestelako unibertso kulturala, ñabardurak beterik, aurki dezakete. Frankismoan zehar Euskadiko lagunek izan zituzten mundua ikusteko era eta jokabideak ez ziren bakarrak eta hori ulertzeko Geertzianen kontzeptua ( deskribapen dentsoa) lagungarria izan da.

### 3 Publikazio eskema

Ikerketa hau bost soziabilitate-espaziotan antolatu dugu: ikasketa, lana, aisialdia, espiritualtasuna eta iraupena. Espazio bakoitzean ikerketa-eremua deskribatu da, eta gaiari buruzko zehastasun historiografiko garrantzitsuak gehitu ditugu. Aldi berean, garai hartako legedeari begirada eman diogu kontu horien gainean legeak zer zioen jakiteko. Horrela, arlo bakoitzaren frankismoaren erreferentzia-ereduak finkatu ditugu, eta, segidan, emakumeek eredu horri nola egin zuten aurre aztertu dugu.

Emakumeen jokabidea hainbat estrategiatan oinarritzen zen. Estrategia horiek bateragarriak ziren eta, normalean, bat aukeratu beharrez, nahastu edo aldizkatu egiten zuten. Oro har, esan zitekeen emakume horiek guztiek, momentu batean edo bestean, erabaki behar izaten zutela zein estrategia erabili, eta aukera hori edo pragmatikoak izan barik edo aldez aurretik hausnartu barik egiten zutela. Familia edo ingurune sozialaren barruan ikasitako jokabidea izan zitekeen, edo egoera bidegabeari erantzun bizia. Jokaera nagusiaren artean onarpena, ezkutatzea eta erresistentzia aurkitu ditugu. Gehienetan, egoerari aurre egitea alferrik zenean, edo kalteak onurak baino handiagoak zirenean, indarrean zegoen emakume-eredua onartzen zuten. Kontua zen batailaren artean aukeratzea.

Askotan, jokabide honekin batera, ukatze-jarduera zegoen. Uka zitekeen beste emakume batzuek bestelako hautabideak har zitzaten (argudioa zen guztiek berdin jokatzen zutela) edo euren berezko kasua erreferentzia hartuta, bidegabekeriak, sexu-jazarpena kasu, gerta zitezten (kasu honetan, berriemaileek egoera hori pairatu ezean, horrelako egoerak ez direla existitzen sinetsita zeuden edo existitzen baziren, normaltzat hartzen zuten edo beste emakumeari botatzen zioten errua).

Ezkutatzeari dagokionez, zenbait arlotan gertatzen zen. Eragotzita zeuden helmugetara iritsi ahal izateko edo estatus jakin baten abantailak lortzeko, euren bizitzaren alderdi batzuk isildu edo itxuraldatu egiten zituzten. Adibidez, zenbait enpresaren kontratazio-politikak edo legeak emakume ezkonduakoei lan egitea

galarazten zienean, batzuek, lan egiten jarraitu ahal izateko, nahiz eta “dotea”galdu, horren gaineko berririk ez zieten ematen ugazabeei. Ikertzean, zerbait anekdotikoa edo enpresen datuen akats administratiboak zirela irudi zezakeen horrek, baina ez da horrela. Kontua ez zen, egun jakin batean, agiria sinatzeko orduan, informazioa ukatua zela, baizik eta erabaki horrek, denbora luzean, bizitza pertsonala eta familiarrari buruzko gezurrak esanarazten zizkiela. Ezin zieten ezer esan ez nagusiei, ezta lankideei ere, eta ia-ia klandestinitatean bizi ziren.

Erresistentziaren ideia, hiruren artean, zailagoa da. Familia- identitatearen aldarrikapenetan izan zezakeen oinarria: gerraren galtzaileren ideian, edo identitate politiko zehatz edo nazionalista baten ideian, edo emakume modernoaren ideian edo emigratzailearen ideian edo familiaburuaren ideian, eta abarren; halaber, aldarrikapena funtsean familiarra ere izan zitekeen: beraren edo familiaren gizon baten kontrako salaketak uka zitezkeen lagun horren onberatasunean oinarrituzedo auzoko taldearenean; azkenik, era orokorrean, bidegabekeriaren aurkako portaeretan, hala nola, elkartasunean, sororían edo elkarren laguntzean oinarri zitezkeen. Aurrerago ikusiko dugun bezala erakunde politiko edo sindikalen kontrako borroka egitean ez datza (behintzat derrigorrean) eguneroko asaldatzean baino. Maiz, ez dira kontuan hartzen modelo erreferentzialaren kontrako esperientzia horiek, benetako hautsak bezala hartu beharrean, iraupenerako estrategiak bezala hartzeagatik.

Ikerketa honetan, amatasunaren gaiaren tratamendua kontu berritzaile izan da. Zainketa eta hazkuntzaren ideiak azpimarratze aldera, atal hori lan-espazio barruan kokatzea erabaki genuen, Izan ere, horiek (zainketa eta hazkuntza) ugaltze lanarekin batera, emakume-lanaren alderdiak dira. Historian zehar, emakumeei behin eta berriz emakume-lana ukatu zaizkie, arazo pribatua iruditzeagatik. Izan ere, kapitalistaren ikuspuntutik benetako lantzat ez zen aintzakotzat hartzen. Legedia frankistaren arabera, eta momentu hartan zegoen emakume ereduaren arabera, jarduera horiek “sus labores” izenekoak, genero-ezaugarriak inposatuta zeuden. Etxeko lanaren onurak hainbat puntutatik justifikatzen ziren.

Sexuek banandutako hezkuntzak eta curriculum bikoitzarekin – formala zein ezkutua- ezinbestekoan bultzatzen zituen neskak horrelako zerbitzuak dohainik ematera. Etxeko lana emakumearen ardura zen eta familia zorionsua izateko emakumeek ondo garatu behar zituzten euren rolak, hots, ama eta emazte onak izan behar zituzten. Praktika horren eta mentalitate horren ondorioak izugarrizkoak izan ziren urteetan zehar. Erdiko edo baxuko maila zuten emakume gazteek askoz aukera gutxiago zituzten ikasteko orduan. Oro har, emakumearen lan-bizitza ezkondu ondoren amaitzen zen. Egoera hori 1961ra arte legala izan zen eta gainera, lana uzteko orduan, “dotea” elementu sustagarria ere bazen. Zorigaiztoko ezkontzen, desleialtasunen, eta genero-indarkeriaren kasuetan, errua emakumeari egozten zioten taldearen zorionari eusten ez jakiteagatik eta lan egin behar zutenean, adibidez, senarraren soldata (esan beharra dago, kasu batzuetan soldatarik ere ez zegoela) osatu ahal izateko, edo emakumea familiaburua izanda, bizitza aurrera ateratzeko, informaleko zereginetan -gaur egun ezkutuko ekonomia izenekoak- aritzen ziren. Lan horiek, ezkutakoak, lehen aipatutako lanekin –garbiketa, lisaketa, enkarguzko brodatua, apopilotza- edo beste emakume-lan batzuekin, prostituzioa kasu, lotuta egon ohi ziren. Azken hori, prostituzioa, ikertzeko orduan zailagoa da oso ezkutatuta egoteagatik Lan horiek guztiek komunean daukaten puntua da inguru kapitalistaren parte ez izatea. Horrelako lanak legalki existitzen ez zirenez, urteak pasatu eta gero, jubilatzeke unean, askori pentsioa ukatu edo murriztu egiten zieten. Kasu askotan, benetako lanak ez zirenen ideia hain dago barneratuta, ezen askok uste baituzten ezkondu eta gero lan egin ez zutela.

Aurrerago ikusiko dugu, ebidentziaren ukapen hori beste alor batzuetan ere gertatzen dela (heziketan, adibidez). Ikerketu dugun lehen belaunaldiari dagokionez, gutxi dira batxilergoa ikasteko aukera izan zutenak, eta askoz gutxiago Unibertsitatera ailegatu zirenak. Egoera sozioekonomikoa, ideologia-jatorria, geografia-jatorria garrantzi handiko faktoreak ziren, baina emakumea izate hutsak funtsezko pisua zeukan. Hezkuntza frankistaren organigrama bera, lehen hezkuntzako etapan, neskek era eskusiboan hezteko (etorkizunean emazteak eta amak izan zitezten) prestatuta zegoen. Nahiz eta berriemaile gehienek -batez ere hasierako aldi honetakoek- 12 edo 14 urte izan arte ikasi zutela badioten egia esan, ia guztiek arautu gabeko hezkuntzan jarraitu

zuten, Horietako batzuk akademia pribatuetara joan ziren, erregimenaren aldekoak ziren erakundeetara- *Sección Femenina* bezala-, Elizetara- *Hijas de María*, *Institución Teresiana* edo *Juventud Obrera Cristiana*-, edo eskola edo institutu amaitutakoan, akademiara edo tutore pribatuenera joan ziren. Ikasketa horiek sistema arruntik kanpo egin zuten gero, haiek diote lehen mailako ikertetak baino ez zituztela izan. Geroago, helduak izanda, emakume horietako batzuek 60-70ko arteko hamarkadan, era informalean ere bere heziketarekin jarraitu zuten jarduera militante barruan arlo politiko, sindikal, kulturean edo auzoko eremuan Ikerkuntza honen kronologia gaindituagatik, 80, 90 et 2000ko hamarkadetan Helduen Hezkuntza Iraunkorra (HHI) zentroetan, musika eskoletan, antzerki-taldetan, talde-kulturaletan Helduentzako Unibertsitatean, ikasten jarraitu zutela azpimagarria da.

Ikusi dugu aldi horretako emakume antifrankistek eredu erreferentzialari nola egiten zuten aurre, baita zein eremu sozialetan ere. Aspektu horiek aztertzeke orduan zailtasun batzuk aurki ditzakegu: lehenengoa begirada da. Begiradak gizonengan jartzen zuen arreta, “andocentrica” zen eta diktadurak berak defendatu zuen pentsamoldeak baldintzatuta zegoen. Hori gaindituta, espazioen definizioa zehazteko orduan, beharrezkoa da soziabilitate-espazioak zeharka aztertzen hastea, gure berriemaileek dauzkaten aurreiritziak definizio hori muga ez diezaguten. Honekin esan nahi duguna da ugaltze-lana lana ere badela, arautu gabeko heziketa edo arautegitik kanpoko hezkuntza ere badela, militantziarik gabeko erresistentzia ere erresistentzia-mota badela.

#### 4 Ikerketa-espazio

Gerra zibileko garaipen frankistak aldaketa erradikala ekarri zuen Estatuaren egituretan. Lehen biurteko errepublikanoan -frankismoak gailendu nahi zuen garai berritzailea hartan- borondate politiko handia zuten, eta hezkuntzaren alderdi batzuk berritu eta hobetzeko gogoia zuten. Estatuak borondate politiko zintzoa zuen, eta ikastexe laikoa, aktiboa, bateratuta, coeducativa eta doakoa bermatu nahi zuen. Intelektualekin -Ortega eta Gassetekin edo Unamunoekin, besteak beste- eta heziketa-erakunde berritzaileekin, hala nola *Institución Libre de Enseñanza*-rekin errepublika burgesak zeukan lotura garrantzitsuagoa izan zen legeak egiteko orduan. Hala ere, eskola errepublikano ideala bi arrazoirengatik, nagusiki, ezerezean gelditu zen: baliabiderik ezagatik eta gerraren hasieragatik.

Diktadura frankistak hezkuntza-mota horrekin amaitzeko estrategiko eta berariazko nahia adierazi zuen. Gerraren zehar, askotan, gune fisikoa baita materiala ere suntsitzeari ekin zizkioten, eta egin ostean, errepublikano, ezkertiar eta Euskal Herriko nazionalisten emakumeei garbizarazten zieten lekuak. Gerra hasi zenetik, lehen hilabeteetan ere, balio kristauen sistemara itzultzeko gogoia zeukaten, patriarka -hierakian oinarritutako familiara, hain zuzen ere. Horretarako, entziklikaren testua *Divini Illius Magistri* (1929) oinarri hartuz “Escuela nueva” sortu zuten. Testu horretan Aita Santuak Pio XI.ak gazteen kristau-hezkuntzari buruzko iritzia ematen zuen eta baterako hezkuntza kritikatzeko zen. Elizaren arabera, baterako hezkuntzak bekatu egitera bultzatzen zuenez eta maisuen aldetik moralgabekoa zenez, kondenatzen zuten

Diktadurak, sozialki gailentzea lortzeko, errepresio basatienetik kontrolatu behar zuen disidentzia. Belaunaldi berriei begira, oinarrizko espazio-sozial bi zeuden: familia eta eskola. Lehen aipatu dugun bezala, lehenengoa kontrolpean izaten saiatuagatik, bere kontroletik urrun zegoen. Horrela izanda, eztabaidagai nagusi bihurtu zen. Arma horrekin belaunaldi berriak moldatzea lor zitzaketan (eta horrela, etorkizuneko familiak kontrolatzea). Baina, halaber, ikusiko dugun bezala, familiararen monopolioa lortzeko nahian Eliza eta Falangea borrokan zebilen. Teorian, biek, oro har, balio berberak

transmititu nahi zituzten. Haatik, kontua zen hezkuntza kontrola zein eskutan zegoen. Izan ere, hezkuntza zutenak boterea zuten.

Argi zeuden, emakume-hezkuntzari dagokionez, frankismoren ustezko teoriak: XIX mendearen hezkuntzara itzultzea eta neskak ezkontzarantz eta amatasunerantz orientatzea. Horretarako, baterako hezkuntza 1938an legez kanpo uztea ez ezik sexuak bereizitako bi curriculum ere jartzea erabaki zuten eta umeen eta nesken heziketari dagokionez, helburu desberdinak ezarri zituzten. Era paraleloan, emakumezkoaren modeloa eta kontramodeloa hedatu zituzten eskola-eremuan. Baterako hezkuntzaren amaierak eskoleentzako inbertsio garrantzitsu baten beharra ere ekartzen zuen, jada aski zaurituta. Eskolek neskak eta mutilak bananduta egon behar zuten eta nazio-eskola haietan espazio nahikorik ez zegoenean, harresi bat baino ez zuten jartzen jolastoki biak banantzeko. Espazioaren banaketa zuzena egitea ezinezkoa bazen- ohikoa zena- ikastetxeko toki txikiena eta txarrena geratzen zen neskekentzat. Elizaren menpeko ikastetxeen kasuan arazo hau ez zen gehiago gertatzen, askoz baliabide gehiago izateagatik eta horrez gain, irakasleek Nazio-Eskolan baino prestakuntza gehiago izateagatik.

Historikoki Euskadin, maisu-maistraren ikasketak begi txarrez ikusten genituen Gaizki ordaindutako ogibidea zen eta, gehienetan, beste eskualde batzuetako maisuak aritzen ziren horretan. Hori oztopoa zen; batetik, hizkuntzaren konturako (nahiz eta eskola-eremuan erabiltzea baimentzen zen hizkuntza bakarra gaztelania izan); bestetik, populazioarentzat (errezelo asko pizten zituelako). Gerra zibilaren ondoren, talde erreprimituenetako bat maisu-maistranena izan zen. “Garbiketa”-prozesuak maisu-maistra eta irakasletako profesional-kopuru handia baztertu zuen, eta aldi berean, gerra ondoko lehengo urteetan lanpostu horiek betetzeko orduan, gudari frankista ohiei eta diktaduraren aldeko kideei lehentasuna ematen zieten, inolako prestakuntza ez izanagatik.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, ekonomikoki posible zenenan, Nazio-eskolara joaten saihesten zen eta bigarren aukera bihurtu zen. Familia frankisten barruan



botereak orekatzeko, Falangearen *Sección femenina*-k 1939ko abenduaren 28an *Servicio Social de la Mujer*-en esklusibitatea lortu zuen. Lehendik, eremu hori lortzeagatik, erregimenarekin lotutako hainbat emakume-erakunde (*Auxilio Social, Margaritas...*) lehian ari ziren. Bete beharrekotasuna zuenez, leku bat ziurtatzen zela falangistei heziketa-organigramaren barruan.

Hezkuntzaren gaineko lege espezifikoek dagokienez, esan dezakegu lehen frankismoaren hezkuntza sistemaren oinarriak 1936ko abuztuaren 19ko Aginduan aurkitzen direla gerra-testuinguru betean. Horregatik, eduki politiko itzela du dokumentu horrek. Bere helburua zen katoliko, abertzale, tradizional eta neskak eta mutilak banandutako “Eskola berria” sortzea. 1945eko uztailaren 17ko Lehen Mailako Irakaskuntzako Legeak ideia bereari eutsi zion eta emakume-hezkuntzaren helburuak etxerantz bideratzen zituen. Gogoratu behar dugu diktaduraren lehen urte haietan parvulo-eskolak ia-ia ez zeudela eta ia beti, lehen mailakoa hastean, sei urte inguru zeuzkatenean, eskolatzen zirela. Ordura arte, bere amen gonon artean eta bi sexuetako beste haur batzuekin kalean jolasten orduak ematen zituzten.

Ikastetxean sartzean, lehen banantzea gertatzen zen, espazioetan ez ezik, edukietan eta helburuetan ere. Gerraostean zehar, nesken hezkuntzaren kasuan, Lehen Hezkuntza bakarrik serio hartzen zuen diktadurak. Memoria eta errepikamenean bitartez ikasten zen, eta ikasteko sistema hori obedientzian oinarritzen zen (esan beharra dago azken aspektu honetan, nekei mutilei baino askoz gehiago exijitzen zirela). Artean, Lehen Hezkuntzan bide bikoitza zegoen, bata zen batxilergo jotzen zuena eta bestea zen bazterbidean geratzen zena. Lehenengoan, gutxienez 14 urtera arte eskolatuta zeuden eta bigarrenetan 12 urtera arte, arrazoi horrek neska ugari momentu horretan ikasketak uztera behartzen zituen. Nahiz eta araudiak emakume-batxilergoa begietsi, eta gizarte-maila ertaina eta altua zeukaten emakume gazteek hara heltzea lortu, egia esan, gero aztertuko dugun bezala, lehen frankismoan, bereziki, hezkuntza-etapa hori emakumeentzat pentsatuta ez zegoen.

Jada maisu-maistraren garbiketa- prozesuaren garrantzia seinlatu genuen<sup>10</sup>. Maisu-ogibidea 30 urteetan, potentzialki, askatzaile bihurtu zen, zeina diktadurarentzat arriskutsua zen. Andereñoen kasua arriskutsua zen bereziki. Baterako hezkuntza emateagatik eta transmititu ahal izan zituen euskal balio ezkertiar edo nazionalistengatik, maisuak adingabeko galtzailatzat harzen zituzten. Maistrak, berriz espazio publikoko usurpatzailatzat jotzen zituzten. Horrelako kasuetan, emakumeen kasuetan, hain zuzen ere, ezartzen zitzaikien zigorrek eredugarriagoak eta moralagoak izan behar zituzten. Gizon- zigorren aldean, urriak ziren, baina kualitatiboki bestelakoak (sexudun errepresioaren beste adibide bat gehiago). Laizismo, ezkertiarasuna edo “separatismoa” praktikatzearaz salatzen zituzten. Akusazioek esfera pribatuko portaeretan (mezataraz bazihoazen edo ez, janzkeran, harreman pertsonaletan...) jartzen zuten arreta.

Sexuaren araberako errepresio-sistema espezifikoa ez zen egon. Izan ere, kasu guztiak Batzorde Probintziales C eta D epaitu zituzten.

Garbiketa ondoren, ikasgaien edukiari eta metodologia didaktikoari buruzko beste kontrol bat zegoen pentsatuta geratzen ziren maistra-maisuentzat. Emakumeei dagokienez, horrek ondorio drastiko batzuk izan zituen, adibidez, etxeko lanei eta eskulaneiei balio nagusia ematen hastea. Lehen ere, materia horiek emakume-curriculumean zeuden, baina orain, bizi-garrantzia izatera pasatzen ziren. Gauzak horrela izanda, maistra, irakaslea izan beharrean, gizartearen ama bihurtu zen. 1945eko Lehen Mailako Irakaskuntzako Legeak neskak etxeko bizitzara eskulangintzara eta etxe-industrietara bideratu behar zituztela markatzen zuen era esplizituan. Emakumeak zainketaren mundura zuzentzearen ideia oso garrantzitsua zen gerraondoan. Horrela eginez, Estatuak dirutza aurrezten zuen eta aldi berean, emakumeak espazio publikotik eta bizitza politikotik urruntzen zituen, zein diktadurarentzat oso garrantzitsua zen.

Europar ezarrita zegoen eskema tradizionalera itzulzen zen. Horren sistema arabera, agresibitate, arrazoika eta ekintza, mutilen berezko ezaugarriak dira; eta

---

<sup>10</sup> Fenomeno horretako ikerketa sakona da: OSTOLAZA, Maitane, *El Garrote de la depuración: maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996.

diziplina, obedientzia eta mantsotasuna neskenak. Mutilak espazio publikoetan kokatzen zituzten, neskak, berriz, zaintza-arloan. Nesken zereginak ziren: etxea, familia, ezkontza, umeen hazkuntza eta zaharren eta gaixoen ardurak. Bai hezkuntzan, bai eskola-testuetan, neskek ez zuten emakume-erreferente historikorik, eta bere heldutasunera helduta, gara zitzaketen lan bakarrak lehenago aipatutakoak izango lirakeela ohartarazten zieten; hortaz, haientzat ikasten jarraitzea neketsua izateaz gain, alferrikako lana zen.

Curriculumak eta materialak ez ezik, diziplina ere sexuaren arabeko bereizteko (edo era patriarkalean) pentsatuta zegoen. Testuinguru honetan hainbat motatako esperientziak aurkitu ditugu. Oro har, esan dezakegu zentro katolikoetan ezartzen zituzten zigorrak apalkuntza publikoan zein ahozko erasoetan jartzen zutela arreta, eta zentro publikoetan, berriz, maizago bortzikeria fisikoa erabiltzen zutela. Baina honek ez du esan nahi diziplina lasaigoa zenik. Diziplina isiltasunean eta obedientzian oinarrituta zegoen, halako moldez non gelatik kanpo, jantokietan edo logeletan mintzatzea debekatzen bazituzten, eta nahiz eta bidegabekoa izan, haiek agindutakoa bete egitez gero, ez zegoen errepresaliarik. Edozelan ere, urteen eta testuinguruen arabera, diziplina hori lasaitzen joan zen, eta horren gainean, hain zuzen ere, liburu honetan oso bestelako gertaerak bildu ditugu. Izan ere, baserria edo tradizionalistaren gunea ez da hiria edo tradizio liberalaren gunea bezalakoa eta era berean, gerraostekoa ez zen 60urteak bezalako izan. Escuela nazionaleen eta mojen ardurapean zeuden zentroen arteko aldeak erritoak eta sinboloak ziren. Hala batean nola bestean ohiturek eta kristau-tradizioek garrantzi handia zeukaten. Eskola nazionaleetan banderari agurra ematen zioten, himno frankistak edo tradizionalistak abesten zituzten eta -aldizkako ikuskapenek zenbat beldur ematen zieten, edo maisuek zenbat ardurak zuten- *Formación del espíritu nacional*-ari garrantzi handiago edo gutxiago ematen zioten. Ikastetxe erlijiosoetan, berriz, egunero otoizten zuten -eskola askotan ere, maisuen arabera-, jai kristauak gordetzen zituzten eta askotan brodatua eta eskulanak “aisialditzat” zituzten. *Sección Femenina*-rekin egiten zituzten *Labores* izeneko irakasgaiez gain, gazte asko eskolaz kanpoko ekintza izango balitz bezala -asteburuetan ere- bordatzen ikastera edo beste aisialdi-jarduera batzuetan aritzera joaten ziren moja-ikastetxeetara. Neskekiko lotura horrek ikasketak amaitakoan ere jarrai zezakeen.

Gure liburuan, jatorrizko familia ezkertiarra, errepublikanoa edo Euskal nazionalista duten neskengan arreta hatzen dugu. Egiatzatu dugu, gehienetan, ahalhegin handiak egin behar izanagatik, familia horiek bere alabak erlijioso-ikastetxetara bidaltzen zituztela. Egia da, tradizio handia dagoela Euskadin eta horrelako ikastetxeek ezarpen ona dutela. Egia ere bada, erlijiosoak ziren familien kasuetan, aukera hori erabat koherentea izan zitekeela. Horrez gain, aipatu dugu Eskola Nazionalak baliabide gutxi eta oso mugatutako aurrekontua zuela. Baina, lekukotasunetan behin eta berriz errepikatzen da ideia bera: lehentasun hori baldintzatuta zegoela estatal zentru gehienetan ematen zuten doktrinamendu politiko frankistarengandik ihes egiteko aukeratzen zutelako.

Gure berriemaile askok, batez ere lehen belaunaldiek, ikasketak utzi zituzten puntu honetan, 12 eta 14 urteren artean, hain zuzen ere, Batzuk lan egiten hasi ziren, beste talde handi batek beste ikasketa batzuk zirkuitu ofizialetik kanpo akademia pribatuetan –batzuetan *Sección Femenina*-ra hurbiltzen ziren edo beste talde batzuetara, hala nola, *Juventud Obrera Cristiana* -ra doako heziketa jasotzeko- edo batezbestekoan, lantegietan aprendiz lan egiten zuten. Batez ere, ikasketekin jarraitzen zuten hiriguneetan bizi zirenek –zentro horietarako sarbide errazagoa izatearren- eta familiari laguntzeko lan egin beharra ez zutenek. Denboraren poderioz, aukera hori zabaldu egin zen. Horrela, 50eko hamarkadaren bukaeran edo 60ko hamarkadaren hasieran gazteak zirenek diote administrazioa, kontabilitatea, brodatuak, etab. ikasi zutela.

Lehen esan dugu, batxilergoaren ikasketak- 1970eko Heziketako Lege Orokorrak sortutakoak emakume-interesengandik guztiz deskonektatuta zeudela. Arrazoi hori nahikoa da haiek lehen frankismoan zehar batxilergoa ikas ez zezaten. Hiri-guneetan bakarrik zeuden institutuak non gazteek ikasi ahal izan zuten eta horrelako ikasketak eskaintzen zituzten erlijio-zentroei dagokienez, dirutza eskatzen zieten familiei. Ikasle batzuk bekadunak ziren, baina egoera horrek onurak baino kalteak ekartzen zizkieten. Ikasleak izateaz gain, erlijiosoen langile bihurtzen ziren eta beste ikaskideek begitan hartzen zituzten. Nesken bigarren ikasketei aurre ahal izateko,

aldez aurretik, familiek dirua aurreztu behar izaten zuten itzuli beharrik gabeko dirua inbertitzeko zeren eta batxilergo edo unibertsitatera joan arren, lan-merkatuan sartzeko aukera gutxi zeukaten.

Gainera, herrigunetan edo instituturik edo unibertsitaterik ez zuten herrietan bizi izanez, mantenua eta joan-etorriak ordainarazten zizkieten. Aurrerago, institutu zentrala ireki zutenean, eta horrekin batera, eguneko ordutegi ez ezik ordutegi zabalagoak ere bazituzten beste zentro batzuk, neskek ikasketak eta lana bateratu ahal izan zituzten.

Halaber, hainbat unibertsitateko ikasketetan, tradizioz emakumezkoak zirenetan (erizaina edo maisu-maistra, esate baterako) ikasleek ikasketak ordaindu ahal izatea errazagoa zen. Ikasle batzuek, unibertsitate edo institututik hurbil bizi ziren senitarteak zituztenek, ikasketek irauten zuten bitartean, arrazoi ekonomikoengatik (emigrazioarekin gertatzen zen bezala) haiekin bizitzera joatea pentsa zezaketen. 50 urteen amaieraren eta 60ko hamarkadaren artean, bai gizartean, bai ekonomian gertatuko aldaketekin, emakumeak apurka-apurka ikasketa horietara ailegatzen joan ziren. Itxaron behar izan genuen 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorra heldu arte, bide hori, aurreko urteetan aitzindariak ibilitakoa, apaltzeko. Oinarrizko Hezkuntza Orokorra baterako hezkuntza izatera pasatu zen eta beharrezkoa egin zen 14 urte izan arte. Egoera ekonomikoak aukera eman zien familia askori hala semeak nola alabak ikastera bidaltzeko. Horrez gain, kontsumo-gizarteak eragiten zuen beharrei aurre egin ahal izateko, emakumea ezkondu eta gero, lan-merkatuan sartzen joan zen apurka-apurka. Sartze horrek Estatuari bere hezkuntza-sistema aldarazi zion. Urrun geratzen zen gerraosteko testuingurua eta interesgarriagoa zen gizarte modernoaren aginduei adere ematea eta emakumeei ertain eta goiko mailako hezkuntzarako bidea erraztea. Beraz, Estatuak 1945eko Legeak adierazi zuen baino haratago joatea baimendu zituen emakumeak. Alabaina, pauso bat atzera zihoazen. Ordurako, emakumeek urte batzuk lehenago bere kabuz hezkuntzara ailegatzea lortu zuten, familiak beste soldata bat izatea behar zuten, eta emakumeen doako zainketaz gozatzea baino interesgarriagoa zen Estatu moderno iruditzea.

## 5 Lan espazioak

Hezkuntzaren gaiarekin gertatzen zen bezala, euskal emakume antifrakistaren lan-jarduerari buruzko analisia egitea oso zaila da. Emakumeek ordaindutako enplegua zutenean- batez ere 50 urteen amaieran eta maiztasun gehiagorekin 60ko hamarkadatik aurrera- kontua simpleagoa zen. Berriemaileek kontatzen ziguten zentzu horretan euren bizitza laborala nolakoa zen, helburuak, nahiak eta etxetik aparteko lana izatearen arazo nagusiak. Beste egoeretan, adibidez, emakumeek lan egin ez zutenean edo ezkondu aurreko aldi laburra baino egiten ez zutela baieztatzen zutenean<sup>11</sup>, ez da hain erraza.

Lana ordaintzen ez bada, lana ez denaren ideia, etxetik kanpo eta sektore emankorrean oraindik erabat osatuta dago. Emakumei buruzko ikerketa egiten ari garenez, uste dugu garrantzitsua dela lan espazioaren barruan, ugaltze-lanarekiko lotutako aspektu guztiak sartzea. Hasteko, garai hartako ezkontzaren ezaugarrien definizioa egin dugu eta ikusi dugu, boterearen kontzeptualizazio giza, gakoa zela genero-sistema babesteko eta transmititzeko. Frankimo garaiko amatasunari eskaini diogu bigarren atala eta, adibide batzuen bitartez, adierazi dugu emakumeek diktadurak ezartzen zizkioten rola gainditzeko estrategia bezala, eredu erreferentziala onartu eta asimilatu egiten zutela. Ezkontza edo amatasuna izan zitekeen. maitasunaren erantzuna edo berezko *habitusen* asimilazioa ez ezik, zenbait bizi-helburu bete ahal izateko abantailaz gozatzeko aukera ematen zien estatusa ere .

Amatasunari dagokionez, amatasun soziala zela aipatu dugu eta horrez gain, adierazi dugu diktadurarentzat, zaintze eta hazkuntzaren arloan doako langileak izatearen beharrez garrantzitsua zela familien kontrol ideologikoaz jabetzeko. Zentzu horretan, ikusi dugun bezala gure berrimaileen lekukotasunen bitartez, batzuek antisorgailuak erabiltzen zituzten euren amatasunak noiz izan behar zuen erabakitzeko edo sexuz beldurrik gabe gozatzeko. Bi kontu horiek, sexualitate eta konteazepzioa, errepublika garaiko urteetan izugarri aurrerratu ziren nahiz eta bakarrik elite intelektual

---

<sup>11</sup> Hemen aipatu behar dugu, 80 urteetako krisialdian emakume askok bere kabuz edo bestearentzat lan egin behar zutela.

batzuen eremuan, ezkertiar inguruetan edo, gerran zehar, Errepublika legedian (Federica Montsenyren ministerioan) tratatu. Puntu honetara helduta, hurrengo atalean profesionalizazio eta “maternologiarekin”<sup>12</sup> lotutako emakume-espasioz jabetzearen auzian arreta jarri dugu. Interesgarria iruditu zaigu aipatzea osasunaren profesionalek, gizonek hain zuzen ere, haurdunaldian, puerperioan, eta hazkuntzean zehar, emakumeek baita amek ere zeukaten protagonismoa ordezkatu zutela. Izan ere, Nash dioen bezala, horrek ugaltze-lanaren aipua eta gutxiespena ekarri ditu.

Emakumeen etxetik kanpoko lanaren gaineko azterketa egin baino lehen, emakume-lanari buruzko araudi nagusiak bildu ditugu lehen epigrafe batean. Bertan, legediaren eta aldiaren arabera zer lanetan eta zein baldintzatan lan egin ahal zuten emakumeek adierazi dugu. Zentzu honetan Jordi Rocarekin<sup>13</sup> ados gaude. Berak baieztatzen du diktaduraren asmoa ez zela emakumeek bizitza osoa etxe barruan igaro zezaten, baizik eta lan-ordaindura heltzearen debekua emaztearen figurarako pentsatuta zegoen. Halaber, ideal hori lehen frankismoaren emakumeentzat bururatuta zegoen. Izan ere, 1961<sup>14</sup> ko legediaren aldaketekin emakumeei ezkondu eta gero lan egitea baimentzen hasten zaie.

“Etxeko amak (baino askoz gehiago)” epigrafean emakumeek bi arlotan (produktibo eta ugaltze-arloan; etxeko eta etxe kanpoko arloan) zeuzkaten hainbat lanari buruzko adibide batzuk aipatzen ditugu. Aspektu honetan, lehen frankismo gizarte eta kontsumo gizartearen arteko bereiztasunak azpimarratzen ditugu. Lehen frankismo gizartea berriz osatzen zenean, doako zainketak behar zituen ezinbestean; geroago, kontsumorako zuzendatutako gizartean emakumeen lana beharrezkoa zen familiek kontsumitu ahal izateko. Emakume antifrankisteei dagokienez, ekonomiko beharrek batera errepresioa ere bazegoen, nahiz eta esan behar izan, gerraostekoan desegonkortasuna eta miseria oso zabaldua zeudela. Horrez gain, familiak berriz

<sup>12</sup> Mary Nashen lana horri buruzkoa da: “Maternidad y construcción identitaria: debates del siglo XX”, en FRANCO RUBIO, Gloria A. (ed.), *Debates sobre la maternidad desde una perspectiva histórica (siglos XVI-XX)*, AEIHM-Icaria, Barcelona, 2010.

<sup>13</sup> ROCA I GIRONA, Jordi, *De la pureza a la maternidad: la construcción del género femenino en la postguerra española*, Subdirección General de Museos Estatales, Madrid, 1997.

<sup>14</sup> 1961ko uztailaren 22a Legea, 1962 otsailaren 1eko dekretuan zehaztuta.

konpontzea oso zaila zen; familien kideren batzuk gerran hil zituzten, atxikitu zituzten, kontzentrazio-esparrutan sartu zituzten, erbesteratu zituzten, eta abar. Halaber, 60 urteen gertatutako aldaketak emakumeen erabakiak baldintzatu zituzten (nahiz eta kasu guztiak berdinak ez izan). Ezkertiar eta demokratiko ideologiaren aldeko emakumeak lan-ordaindua independentzia modu batetzat hartu zuten, eta eurentzat emakume-identitatearen alde bat zen eta modernitatearen modu bat. Irizpide horretan kontsekuentea izateko, 60-70 urteetan eta, batez ere, 80 urteetan, hamaika emakume mugimendu sindikaletan sartuta egon ziren



## 6 Aisialdi-espazioak

Aztertu dugun familia gehienak, jatorriz, langileak ziren. Gerraostekoa gizarte berriz konpontzeko garaia izan zen. Errepresioak politika-disidentzian jarria zuen arreta. Ikasi dugu familiaren inguruan ez zela zaila kide bat baino gehiago gartzelan, erbestean, hilda, edo gerran hilda aurkitzea. Etxera itzultzen zirenean, bizitza askotan ez zen erraza, ezin zituzten berrezkuratu gerra hasi baino lehen zeuzkaten ondareak eta lan egiteko erregimenaren aldeko lagunen “abalak” beharrezkoak izaten ziren. Egoera berri horri aurre egiteko, etxe barruko eta kanpoko lanak egin behar izan zituzten. Edozein kasutan denbora gutxi zeukaten eskolatu gabeko seme-alabak zaintzeko –gogora dezagun 6 urte inguru eskoletan sartzen zirela- eta exean lan egiten zutenean jotzen, edo lisatzen ez zeukaten umeak jolasteko tokirik.

Gehienetan, nekek eta mutilak zortzi edo hamar urte izan arte elkarrekin jolasten ziren, baina egoera horrek, belaunaldiaren edo jatorrizko herriaren arabera, alda zezakeen. Nerabeak sexu bereko taldeetan banantzen ziren. Lehen haurtzaroko lagunak auzoan aurkitzen ziren- geografikoki ez ezik sozioekonomikoki eta ideologikoki ere hurbil izateagatik- taldeak, berriz, ikastetxeko lagunen inguruan eratzen ziren. Hala eta guztiz ere, berriemaileen lekukotasunak kontuan hartzen baditugu (zeinek ia guztiek auzotik urrun zeuden erlijioso-ikastetxeetan ikasi zuten) bi talde horiek ez zuten zertan aldi berean geratu.

Lehenengo urteetan manei-jolasek neskak eta mutilak naturarekin kontaktuan jartzen zituzten. Jolasak oso aktiboak ziren eta trebetasuna eskatzen zuten. Haurrak objetuekin edo jostailuekin jolastu beharrean, elkarrekin jolasten ziren. Jostailuak jolasearen zati bat zirenean, imitatzeke eta itxurak egiteko erabili zituzten. Jolasteko gune ezkutuenak aukeratzen ziren eta gurasoek han, arriskutsua izateagatik, jolastea debekatzen ziotenez, horrexegatik gustukoenak ziren. Enparantzak, elizetako arkupeak eta kalea oro har, umeen tokia ziren.

Neskak eta mutilak leku irekietan jolasten ziren mugitu ahal izateko. Korrika egiten zuten, pilotan ibiltzen ziren, ezkutaketan jolasten ziren. Imitazio-jolasarako

jostailuen erabileraren kasuan izan ezik, jolasan ez zegoen sexuaren arabeko banaketarik. Imitazio-jolasak estereotipatuak ziren, baina gogoratu beha dugu helduek (senitarteek, bizilagunek, parrokiak), oparitzen zituztela. Oro har, gogoratutakoak dira: soka, yo-yoa, iturriak, txorro morro piko taio ke!, txingorgaina, trukemea, gaiak, ezkutaketa, *comidita*-k eta pilota. Bakarrik *comidita*-ren kasuan sexualizatuta zegoen jolasa. Honetan esteriotiputako rolak ematen zizkien neskei eta mutilei.

Ikastetxeetan izena ematean, mutilak eta neskak kaleko eta auzoko bizitza eskolako jolastokiarekin uztartzen hasten ziren. Jolas-gune berri horrek izugarritzko aldaketak ekartzen zizkien: neskak eta mutilak bananduta zegoen; moja ikastetxeen kasuan, instalazioak eskola nazionaletan baino hobeto prestatuta zeuden –askotan eskola ez zegoen patiorik edo itxia edo barrukoa zen eta horren ordeztu herriko enparantza erabiltzen zen- halako bateko tamaina ikastetxeetan adinaren arabeko banaketa eragiten zen eta zuzendutako jarduerak baita kontrolatutakoak ere ugariak ziren. Sormena lantzeko jolasak, irudimena eta mutilen eta nesken arteko interakzioa baztertzen ziren eta horren ordeztu, berdintasuna eta diziiplina ezartzen ziren. Sarritan neskei, kontaktuko edo jarduera fisiko askoko jolasak zituztenean, errieta egiten zieten eta saltatu eta korrika egin ordeztu, geldiak egotera edo hizketan ari izatera. bultzatzen zituzten.

Urtaroaren arabera, jolasak ere aldatzen ziren. Orain arte, oro har, udaberriko eta udako jolasak aipatu ditugu, baina eguraldi txarra egiten zuenean, beste leku batzuetara joaten ziren eta oso bestelakoak ziren jolasak. Neskei etxe barruan abegi txarra egiten zitzairen, lan handia zegoelako eta gehiegizko zarata egiten zutelako. Horrenbestez, atarrietara eta eskailburuetara joaten ziren eta han, tortolasetan, kromotan, kartatan aritzen ziren edo arratsaldea antzerki egiten pasatzen zuten.

Ezagutu ditugun familia errepublikano, ezkertiar eta euskal nazionalista askok irakurketan interes handia erakusten zuten. Gure berriemaileren batzuek bere gurasoekin irakurtzen ikasi zuten eta haietako askori gurasoek eta nebek liburuak eta ipuinak ematen zizkieten eta gauez gurasoekin ipuinak irakurtzen zituzten.

Nerabezaro aldaketek nahiz gorputzean nahiz inguruan gazteak emakume-taldeetan biltzera eramaten zituzten. Talde horietan konfidentziak eta osasun femeninoaren eta sexu-harremanen gaineko lehen nozioak trukutzen ziren. Oro har, heterosexual harremanekin lotutakoak. Aisialdia, batez ere, igandeetan kontzentratuta zegoen eta aisia-lekuak ere aldatzen zituzten. Aisialdi-jardueren artean talde-paseoak, dantza (parrokiako jaietan eta, “chicharrillo-an”) eta txangozaletasuna guztukoenak ziren. Dantzalekutara joatea ez zen ohikoa lehenengo belaunaldian, baina bigarren belaunaldian arrakasta handia izan zuen.

Paseoan neskak hizketan aritu, baita erakutsi ere, egiten ziren, horrela beste inguruetan ezin zituzten ikusi mutilak ezagutzen zituzten. Lehen belaunaldiko emakume gazteentzat dantza aisialdiko jarduera nagusia zen, zeren eta aisialdiko lokaletara eta tabenetarako sarrera galarazita zeukaten, lokala horietako giroa, batik bat, gizonezkoena izateagatik. Dantzaren arauen gogortasuna, lekuaren, garaiaren eta uste sendoen araberakoa zen. Oro har ere, behatu ahal dugu, familia errepublikanetako eta ezkertiarretako gurasoek alabenganako konfiantza handiagoa izaten zutela eta adibidez, ordutegiei edo beste sexu bateko harremanei dagokienez, malguagoak ziren.

Ezkongai-aldiaren hasierak, hain zuzen ere, emakume- koadrilaren haustura ekartzen zuen; batetik, aisialdiko denbora guztia bikotearekin pasatzeagatik (beste kontu bat zen mutilek egiten zutena, zeren eta, oro har, emaztegaia ordu zehatz batean etxean utzi ondoren, lagunekin jarraitzen zuten jaia); bestetik, senargaiaren koadrikoa bere egiteko eta bikoteen artean irteteko joera zegoelako (gehienetan, ohitura hori ona zen, esperientza berrietako hasiera izateagatik) Emakume askorentzat ezkongai-aldiko garaia militantziaren hasiera zen. Ez, nahitaez, bere bikotearen ideologia hartzeagatik, baizik eta, maiz, ideiak berberak zeuzkaten gizonekiko harremanetan hasten zirelako –gauza bera ez zuten zertan gertatu lan-taldearekin edo ikasketa-taldearekin- eta apurka-apurka mundua era berdinean ikusten zuten lagunez inguratzen hasten ziren. Lehenengo belaunaldiko gazteen kasuan, maskulinitasuna, emaztegai, emakume eta seme-alabaz aparte izango balitz bezala, ulertu eta bizi egiteko joera zuten. Hori ere, ezkertiar

ideologia edo justizia sozialean sartuta zeuden gizonekin ere gertatzen zen. Askotan, emakumeek bere aisialdi guztia seme-alabez gozatzeko erabiltzen zuten. Gerraren ondoren jaiotako bikote gehienek eta beste bikote batzuk, zeinek ezkontide biek etxetik kanpo lan egiten zuten, partekatzen zuten ardura hori. Diktaduraren kontrako ideologia zeukaten familiek seme-alaben ardurara eta askatasun-balioen transmisiora garrantzi berezia ematen zuten. Alaben kasuan, ikusi dugu, posible zenean, garapen profesional eta pertsonalerako aukerak ematen saiatzeko joera zegoela, eta batez ere 50 urteetan mutilek zeuzkaten aukera berberak neskak zitzaten nahi zutela. Hori, eta lehen aipatu dugun bezala, emakume gazte batzuei gutxiago kontrolatzen zitzaiena zen ingurune bereko baina beste ideologia batzuen zeukaten familiengandik bereizten zitzaizkiena.

## 7 Espiritualtasun espazioa

Eliza Euskadiko garai frankistan oso kontu zaila da. Beste ataletan egin dugun bezala, gerraosteko eta 60ko hamarkadatik aurreraren aldiaren arteko bereiztasunak aztertu behar izan ditugu. Bereiztasun horiek erlijioso askoren jokaera goitik behera aldatu zuten gero, Espainako gizartearen aldaketei ez ezik, Concilio Vaticano II.ari (1962-1965) ere dagozkie. Aldaketa horri esker euskadiko mugimendu langile eta nazionalistak apaiz ugarien laguntza jaso zuten eta hezkuntzan ere nabaritu zen. Hezkuntza gune katoliko batzuk, hala gizonezkoak nola emakumezkoak, era irekiagoan hezkuntzari begiratzen hasi ziren.

Anabella Barrosok<sup>15</sup> Euskal Herriko kleroari buruz egindako lan sakona gidaria eta iradokitzaile izan da ikerketan zehar. Barrosok “eliza garailea” eta “eliza galtzailea” gerraren ostean zeudela aipatzen du bere liburuan. Gipuzkoako kleroa eta Bizkaikoa ere eliza galtzailearen barruan zeuden baina Gasteizko elizbarrutian biak batera (garailea eta galtzailea) existitzen ziren. Liburaren kapitulu honetan azaletik aipatu ditugu: Gasteizko Seminarioak jasandako gorabeherak; 1950. urtean Gipuzkoako elizbarrutia Iruñeko artzapezpiku-barrutiazalarena izatera pasatu zela; Bizkaiko eta Arabako elizbarrutia Burgoseko artzapezpiku-barrutiazalarena zirela; 50ko hamarkadetik aurrera apaizen eta nazionalisten eta sindikatuen arteko interakzioak; eta eremu horretan apaiz talde batek sufritu zituen gatazkak. 1960 eta 1965 urteen artean apaiz batzuk antifrankismoaren aurkako konpromisoagatik beste parrokia batzuetara joanarazi zituzten, baina, egia esan, 50 urteen erdialdetik kleroren zati handi bat dagoeneko polizitatuta zegoen. Hurrengo hamarkadaren bukaeran ETaren bortxakeria kondenatzen zuten apezpikuen eta ETaren postulatuen hurbil zeuden apaizen arteko borroka izan zen. (*Gogor* taldea kasu)

Gatazka hori guztia lehertu zen. Protestak etengabekoak ziren eta, batez ere, 1968. urtetik aurrera apaizak giltzaperatu ziren. Egoera hori geldiarazteko Zamoraren “cárcel concordataria” erabili zen, baina ez zen ezer lortu eta gatazkak hurrengo urteetan ere irekita jarraitu zuen. 1974. urtean Antonio Añoverosek homilia non euskal

---

<sup>15</sup> BARROSO, Anabella, *Sacerdotes bajo la atenta mirada del régimen franquista. Los conflictos sociopolíticos de la iglesia en el País Vasco desde 1960 a 1975*, Desclée de Brouwer, Bilbao, 1995.

identitateari eusteko eskubidea eskatzen zuen eman zuen, baina Carrero Blancoren atentatuaren hurbiltasunaren kariatz, estatal arloek txarto hartu zuten.

Euskadiko Elizaren testuingururi buruzko zehaztasunak egitea garrantzitsua zen gure ikerketarako. Izan ere, ikusiko dugunez, elkarrizketatuko emakume guztiek, nolabait ere, Elizarekin zuzeneko lotura zuten. Kapitulu honetan gozatutako erlijioaren testuingurua eta inposatutakoarena bereizten dugu. Frankistaren diktadurak balio sozialak eta genero-rolak kristau-pentsamenduan oinarritzen zituen. Eliza, berriz, Estatuaren botere faktiko bat zen eta ez zuen deus ere bigarren mailako papera jokutzen. Jada azaldu dugu familia antifrankisten gehiengoak ahal izatekotan, ikastetxe katolikoak aukeratzen zituztela, bere alabek ihes egin zezaten doktrinamendu falangistarengandik (eta bere errendimendu akademiko hobea izateagatik eta baliabide gehiago izateagatik). Erlijiosoekiko kontaktu hori askotan hedatzen zen eskola-ordutegitik kanpo. Neskak eta gazteak ospakizun erlijiosoetara zihoazen eta bere lanaldiren barruan edo kanpotik, asteburu-ibilaldiak egiten zituzten, ariketeta espiritualak egitera zihoazen, brodatu-klasetara zihoazen...

Ikastetxe erlijiosoak eta elizak aisia-espazioaz eta doako hezkuntzaz hornitzen zituzten. Zona batzuetan erlazio hori ez zihoan urrunago, baina beste batzuetan erakunde katolikoek nagusitasun handia zuten gizartean. Horrela gertatzen zen, adibidez, Ezkerraldean. Esan dezakegu “*Acción catolicarekiko*” gazteen erlazioa gehiengoduna zela. Izan ere, hainbat berriemailek “guztiak *Hijas de Maria* ginen” baieztatzen dute. Ez dugu ahaztu behar familia antifrankistaren emakumeak nahitaez ingurune laikitik ez zetozenik, baizik eta kasu batzuetan berezko ideologia ahoa betean katolikoa zen, nazionalisten kasuan bezala. Giro horietan frankismoa arbuiatzea ez zen, ezinbestean, emakume frankistaren modelo ideala arbuitzea, behintzat, balio kristauekin harremani dagokienez.

Frankismo bigarren etapari dagokionez, bide bikoitza ikusi dugu. Batetik, batzuek Concilio Vaticano IIren hartutako balio kristauak bere egin zituzten eta euren borrokarekin ados zeudela sinetsita zeuden. Horrez gain, pentsatzen dute oso

baliagarriak izan zirela 1968ko maiatzearen “lagun-leherketan” (berdintasunaren ideia, herri indigenen duintasunaren aldeko borrokaren zilegitasuna...) Mugimendu berri batzuen agerpenak, hala nola askatasunaren teologiak, Elizaren barruan ere halako borrokak posible zirela pentzarazten zien.

Halaber, herri batzuetan, elizaren alde batzuek gatazkaren bat, adibidez *Huelga de Bandas*-en (1966-67) parte hartzeak eta “apaiz langileren” lanak, *obrerista* eta erlijisoen arteko borrokak leuntzen zituen. Lekukotasunek erakusten duten bezala, ez zen arraroa “Hijas de Maria”-n hastea, gero JOCetara pasatzera eta politiko aktibismoan amaitzea (Langile Komisioetan, Euskadiko Mugimendu Komunistean edo Lanaren Konfederazio Nazionalean).

Elizarekiko kontaktuak emakume eta nesken egunerokotasun eta aisia baldintzaten zituen testuinguru anitzetan. Nahiz eta beranduko frankismoan emakume batzuek sakramentu-errituren bat arbuiatu, oro har onartzen zituzten. Eurek uste zuten arbuiatzea onartzea baino kaltegarriagoa zela eta arazoak saihesteko ontzat hartzen zuten.

## 8 Erresistentzia -espazioa

Proiektu honetan zuzenki edo zeharka parte hartu duten emakumeak bi aldiz izan ziren frankismoak erreprimetuta, lehenik eta behin, erregimen patriarkal batean “bigarren sexua” izateagatik, eta gero diktaduraren disidenteak izateagatik. Errepresio bikoitz honekin batera, beste baldintzatzaile batzuk aurki ditzakegu. Emakume horientzat frankismoaren unibertsoa askatasunaren gabeko espazioa zen. Espazio horretan haiek hainbat motatako estrategiak, hala indibidualak, nola kolektiboak, zabaltzen saiatzen ziren frankistaren idealarekin bat ez zetozen helburuetara heltzeko. Lehen aipatu dugun bezala, gure lanak “sexudun errepresioa” kontzeptua du abiapuntu Euskadiko frankismoaren testuinguruan. Lehen premisa honi beste bigarren bat gehitu behar dugu: bi tamainako erresistentzia, hain zuzen ere. Kontzeptu hori *Alltagsgeschichte* alemaniarrek oso ondo ikasita izan da eta azken urteetan ikuspegi berriztatzailearekin erabili izan da eta oso emaitzak onak lortu dira. Irene Murillo Aced<sup>16</sup>en lanen, eta Zaragozako Unibertsitatearen ikertzaileen kasuetan bezala.

Eguneroko bizitzaren Historiaren korrante honek frogatzen du gizartean bi erresistentzia-modelo elkarrekin bizi zirela eta konbina daitezleela. Bata, beste mugimendu politiko disidente batzuekin lotuta dagoela da (*widerstand*) eta bestea eguneroko bizitzan gertatzen diren jarrera eta portaeretan aritzen da (*resistenz*). Azken horien gainean lehen errepertorio bat egiten saiatu gara eta “eguneroko errebelamendu”<sup>17</sup> moduak izango balira bezala landu ditugu. Aspektu horretan Euskal antifrankismoaren emakume-mundua oso aberatsa da, pobrezia, klase-duintasuna eta sororidadea gurutzatzen direlako. *Sin pan ni libertad*- ek egoera batzuk biltzen ditu eta egoera horien ondorioak iraupen-jarrerak ez ezik erresistentzia aktiboko praktikak ere badira. Askotan portaera horiek, gidari eta inspirazio gisa, seme-alaben ibilbideetan eragina izan zuten eta hurrengo belaunaldian militantzia edo ideologiren bitartez, fruituak eman zituzten.

Esan dezakegu, ideia hauek liburuko kapitulu guztietan zehar gainetik hegan

<sup>16</sup> MURILLO, Irene, *En defensa de mi hogar y de mi pan. Estrategias femeninas de resistencia civil y cotidiana en la Zaragoza de posguerra, 1936-1945*, PUZ, Zaragoza, 2013.

<sup>17</sup> J. Scottek lanetik hartutakoa, “Formas cotidianas de rebelión campesina”, *Historia Social*, nº 28, 1997.



egiten aritu direla. Baina azken kapitulu honetan, zehatzago analizatzeko espazio gehiago eskaini diegu. Behargabeko errepikapenak saihesteko, erresistentziaren alderdi batzuetan jarri dugu arreta eta beste alderdi batzuk alde batean utzi ditugu beste ataletan komentatu ditugulako. Adibidez, amatasun subertsiboen edo enplegu formalaren zirkuitaren kasuak.

Espazio hori bi ataletan banatu dugu; lehena eguneroko errebeldiaren gaien aritu da; eta besteak aktibismo politiko eta sindikal aspektuetan eta militantzian jarri du arreta. Lehenari dagokionez, hurrengo kontuak tratatzen ditugu: merkatu beltza eta “birsalmenta” (azken hori ez zen negozio hutsa erresistencia eta gizarte-ekintzailtza modu bat baino). Bestalde, modaren aldaketei buruz ere hitz egin dugu eta aspektu horretan zein zen emakume antifrankisten jokabidea aipatu dugu. Adibidez, ikusi dugun bezala, lehenengo urteetan, “emakume moderno” sentintzen direnek modeloaren kontra jokatzeko ideologiaren hurbilago zeuden. Hainbat eremuren adibideak eta bi belaunaldiko emakumeekin lotutakoak bildu ditugu. Adibideek non Eliza sartuta dagoen (zein arropa zeraman elizara, nolakoak ziren eztei-jantziak, eta abar) garrantzi handia dute, baina agintaritza zibilarekin lotutakoak ere aipatu ditugu.

Hirugarren idazpuruan, “el idioma de los afectos” izenekoan, errepresioaren aspektuak hizkuntzarekin lotutakoak tratatu ditugu. Nahiz eta euskal-errepresioa sakon aipatu, hori ez da izan kontu eskusiboa. Adibidez, sarreran, hainbat antroponimikoren debekuari buruzko adibideak eman ditugu (antroponimiko horiek 1932ko maiatzaren 14ko Ministeritza Aginduren babespean erabili zuten). Legeria frankista berria euskal jatorrizko izenei, balio politikoei buruzko aipamena egiten zutenei, edo exotikoak izateagatik, ezkertiarrek ziruditenei zegokie (Salud, Libertad, Armonia, Aurora, eta abar) Halako izenak etxean edo familian erabili beharrean agintarien aurrean erabiliz gero, zigortzen zituzten eta arriskua zen ahozko ohartarazpena edo izuna jaso beharrean, zerbait gogorragoa jasotzea. Alabaina, mota horretako kasu ugari aurkitu ditugu. Horiek identitate baten errebindikazio nazionalista ez ezik, ezkertiar eta liberala ere erakusten dituzte.

Hurrengo epigrafean, “madre vasca” izenekoan, -elkarrizketa batean mahaigaineratu zen Atahualpa Yupanqui abestearen ildotik– berrimaile batzuek esan zituzten gerra eta gerra osteko garaian, etxeak berriro konpondu orduko egin behar zituzten ahaleginak nolakoak izan ziren. Atal hori idazteko garai hartako bizi ziren emakumeen lekukotasunak ez ezik, euren alabenak ere beharrezkoak izan dira. Hasieran, oztopoa izan zitekeena (ikerketa bitxikeriaz bete ahal izateagatik) azkenean baliagarria izan da aspektu batzuei erantzuna emateko, adibidez, balio demokratikoen transmisioari eta beste aspektu identitario batzuei (sentimendu nazionalari, emigrante izatearen norberaren ikusmoldeari edo mailako partaide izateari).

Eguneko asaldurari buruzko atalari bukaera emateko Erreteria ikastolaren sorkuntza eta garapena aipatu ditugu. Gure helburua ez da izan bere historia kontatzea baizik eta kasu hori oinarria hartuz, hainbat ikuspuntutik ikastolak aztertzea: berrikuntza didaktika, hazkuntza, hezkuntza-komunitateko harremanak, klandestinitatean eskola desberdina egiteko zailtasunak, familien aniztasun ideologikoa. Arantxa Idiazabalen laguntza ezinbestekoa izan da atala idazteko (bera Erreterriako ikastolan andereño eta zuzendaria izan zen).

Liburua amaitu dugu antifrankistaren militantzia politikoaren inguruko hausnarketa batekin, emakume-ikuspuntutik, noski. Hausnarketa horretan batez ere, bigarren belaunaldiko emakumeen esperientziak bildu ditugu. Horiek alderdi, sindikatu eta erakunde batzuetan egon ziren sartuta nahiz eta batzuek besteek baino inplikazio handiago izan. Ibilbide militanteak 70 urtera arte ez gauzatuagatik, ia-ia emakume horiek guztiek lehenago ere balio demokratikoarenganako hurbiltasun ideologikoa erakusten zuten.

Kasu ugaritan, jasotako hezkuntzaren ondorio izan zen –batzuetan, Aurora Bascaran eta Ana Maria Alderdiren kasuetan bezala, berezko militante politikoek eta senitarteek erakundeetan sartzera bultzatzen zituzten- beste kasu batzuetan, berriz, erabaki pertsonala izan zen.

Batean zein bestean, ekintza politikak eta sindikalak ez ziren ezustekoan agertu gizarte-asalduraren momentuan (Trantsizioa) baizik eta mobilizazio-mugimenduak apurka-apurka sartzen joan ziren. Egia esan, baziren urte batzuk borrokatzen eramaten zutela eta ideologia gordeta eramanez, edo Elizaren alderdi batzuek lagunduta gauzatzen zen. Horrela izanik, ez zen arraroa emakumeak ekintza batzuetan sartuta aurkitzea (dantza-taldetan, katoliko-taldetan, erakunde katolikotan) edo ikastolak sortzen eta babesten, edo aukoko-erakunde, edo gazteentzako kirol-talderen sorkuntzan parte hartzen. Arraroa iruditu arren, nazionalistek ez ezik, familia antifrankisten gainerakoek ere aspektu horretan berdin jokatzeko zuten.

Nahiz eta politikoki ados ez egon, espazioak partekatzen zituzten, adibidez Elizan elkarrekin zeuden, aberri eguna nazionalistek eta ez nazionalistek ospatzen zuten... Tradizionalki, ezkerria biztanleria emigrantearekin bat zetorren eta nazionalistak bertokoarekin eta kominutate biak oso bestelako bideak zeramatzaten, baina momentu hartako egoera nahasiaren ondorioz, alderdi politiko mixtoak agertu ziren (nazionalistak zein ezkertiarrek).

Ezin dituga ahaztu lan-protesta agerraldiak ezta 60 urteko erakunde sindikal berriak. Gehienetan arlo horretako aktibismoa militantzia politikarekin batera zihoan, baina ezin dugu ahaztu emakumeen papera funtsezko baita bestelakoa ere izan zela. Bestelakoa izan zen nahiz jarreretan, nahiz jokabideetan. Gure Ikerketan ikusi dugu garai hartako emakume-militantzia bigarren mailakotzat zutela eta aukeratzekotan, alde batera uzten zutela. Fenomeno hori nabaritu dugu adibidez, ezkontzetan non ezkontide biak ekintza politiko edo sindikal batean sartuta zeuden eta familia-karga zuten (seme-alabak, zaharrak, gaixoak...) Berritzaileek diote asanblada edo ekintza batera biek joan behar zutenean, edo bakoitzak bere kabuz aldi batera hitzordua zuenean, azkenean, gizonaren konpromisua nagusitzen zela. Erakundeak eurak irizpide horren aldekoak ziren eta argudioa zen gizon-borroka globala zela eta frankismoari dagokionez, orokorra. Emakume borroka, berriz, bigarren kontua zen eta laguntzarik gabe, berez, konponduko litzateke diktadura amaitzean eta askatasun sozialak eta politikoak berriz agertzean.

Dinamika horiek guztiek kontraesanez betetako errealitatea islatzen dute, ezkerren eremuan batez ere. Batetik borroka egiten zen erregimen totalitarioarekin bukatzeko; bestetik bere eguneko bizitzetan pribilegio patriarkalak betiketzen ziren.

Liburuko azken partean eranskina gehitu dugu –zeinetako laburpena ondoren errepikatuko dugun-. Eranskin horretan ikerketan parte hartu zuten berriemaile nagusien bizi-ibilbide batzuk azaltzen dira. Zehaztu behar dugu liburua idazteko eskura izan genituen lekukotasunekin alderatuz, eranskina parte minimoa soilik dela. Elkarrizketatutakoak berrogei inguru dira eta, euren lekukotasunez gain, beste sentikortasun politiko bat zeukaten gizonei eta emakumeei egindako elkarrizketak ere sartu ditugu. (Elkarrizketa horiek ikerketan zehar kontrol bezala baliagarriak izan dira)

### **ANA MARÍA ALBERDI, Eibar (Gipuzkoa), 1949**

Familia sozialistaren barruan jaio zen eta bi neba-arrebako familiako gazteena da. Aldatze eskolan ikasi zuen eta Goiko batxilergoa egin zuen. Bulegari lan egin zuen (lau edo bost urte enpresa batean eta beste enpresa batean hurrengo berrogei urte aritu zen erretiroa hartu arte). 73 urtean ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituen; bat gizona zen eta 1975ean jaio zen (nerabeen gaixotasunagatik hil zen); eta bestea 1975ean jaiotakoa alaba da. Trantsizioan eta demokraziako lehen urteetan zehar, borroka sindikala bere enpresan PSEn militantziarekin uztartu zuen. Eibarko Udaleko zinegotzia izan zen.

### **MARÍA JESÚS ARREGUI, Areso (Nafarroa), 1943**

Bere familia euskalduna zen. Ama baserrian aritzen zen eta aita igeltseroa zen. Hamalau urte izan arte neba-arrebekin baserrian bizi izan zen. Hamaika urte izan arte Areso Escola nazionaletan ikasi zuen eta gero, hurrengo hiru urtetan, bere gurasoek moja-ikastetxe barruan sartu zuten. Geroxeago familia Donostiara joan zen bizitzera eta han Peñaforida institutuan ikasi zuen. Berak ikasten jarraitu nahi zuen eta bere familia ados zegoen berarekin, horregatik, Santanderrera Valdecillako Erizaintza Eskolara joatea erabaki zuenean, lagundu zion. Diplomatu eta gero, ikasten jarraitu zuen emagina izateko. Hasiera batean bokazio gutxi izan arren, gaur egun, berriz, aitortzen du bere lana oso garrantzitsua izan dela bere bizitzan.

75 urtean erresidentzia egin zuen eta lehen urteetan herriko ospital batean eta aldi berean klinika pribatu batean egin zuen lan 1975-1986 bitarteko urteetan Teresa Sanadrian kidearekin klinika pribatu bat, erditzeko prestakuntzan espezializatuta zegoena, atxikitu zuen. Klinika horrek Aguirre de Cacerren bidea jarraitzen zuen.

### **AURORA BASCARAN, Eibar (Gipuzkoa), 1933**

Benigno Bascaran, Eibarko militante sozialista ezaguna, bere aita zen. Indalecio Prietoren eskutik, gurasoekin plazatik plazan joanez, gerra bizi izan zuen. Gerrak

bultzatuta herria utzi behar izan zuten eta herri batetik bestera ibili ziren Frantzian, erbestean, amaitu arte. Hasiara latza izan zuten Frantzian. Aita, Marseillan, kontzentrazio-esparruan zegoen eta bera eta ama Poitiersen. Benignok irtetea lortu zuenean, Tolosan finkatu zen eta familiaren elkartzea eskatu zuen. Aurora normaltasunarekin eskolatu zen Frantzian. Terminala zirudien aitaren gaixotasunaren kausaz eta Lequerica kontsula haien alde mintzatzeari esker Euskadira itzuli ahal izan ziren 1943an. Behin Eibarren, aitak, klandestinitatean, bere militantzia sozialistarekin jarraitu zuen, baina Auroraren hezkuntza ez zuen ahaztu.

1987 eta 1995 artean Eibarko alkatea (PSE) izan zen eta 1989 eta 1993 artean senataria.

### **INÉS CALVO AZNAR, Erromo (Bizkaia), 1929**

Lau neba-arrebako familia bateko bigarrena da. Aita Errioxan jaio zen, baina hilabete batzuekin Arboledara heldu zen eta ama San Salvador del Vallekoa zen. Gerra zibila hastean aita, errepublika-ideiak zituen, frontera joan zen, eta ama hiru seme-alabekin geratu zen. Gerraren zati bat Kantabrian bizi ziren bertako familia batek jasota.

Gerraosteko gogorra bizi zuen. 1943. urtean lan-egora hoberen bila Ezcarayra joan zen, helburura lortu.ez arren. Ezin zuen ikasi eta oso gaztetik lan egin zuen, batez ere lisatzaile eta etxe-garbitzaile. Ezkondutakoan, lana utzi zuen eta bere anaia bakarria zaintzeari ekin zion

### **CONCHI FERNÁNDEZ DE LA HERA, Villaverde Peñahorada (Burgos), 1946**

Aita errepublikanoa zen, baina gerran zehar bando-frankistan borrokatzera behartu zuten. Aita ehizan aritzen zen Villaverden. Conchiren osaba bat estolderietan lan egiteko Bilbora emigratu zen eta ekonomia hobetu nahian, bera eta neba txikiak zirelarik, familia hara joan zen. Laster, bere aitak igeltsero lan egiteari ekin ahal izan

zian, baina bere peoi-soldata gutxiegia zen eta lehen hilabeteetan herritik ekarri zituzten aurrezkiei esker biziraun behar izan zuten. Diru faltaren kausaz, beste etxe batera, non ama Andaluziako eta Galiziako apopiloz arduratzen zen, joan ziren.

Bere lehen mailako ikasketak amaitutakoan, ikasten jarraitu zuen. Goizez, Almi Akademian (Alhondigan-Bilbon) mekanografia ikasten zuen eta arratsaldean, jantzigintza. *Colocaciones* dela medio Elektrizitate Industrialeko bulegoetan lortu zuen lana. Ezkondu eta berehala, lana utzi zuen –1972. urtean- eta bi seme-alaben kargu geratu zen. 1982. urtean berak eta senarrak, une hartan senarraren egoera laborala ezegonkorra zenez gero, Pagasarritik hurbil askaldegi bat ireki zuten.

### **MARÍA PILAR GÓMEZ CORTEZÓN, Madril, 1940**

Hurtzarroan eta gaztaroan Madrilén bizi zen. Txikia zenean, nahiz eta hurbil izan, ez zen gurasoen etxean bizi, denda baten arduraduna zen izekoaren etxean baino. Batxilergo lehen kurtsora arte egin ahal zuen eta 1956. urtean laboratorio batean lanean hasi zen. Bitarteko-sindikala izan zen eta era aktiboan *Sección Femenina*-ren jardueretan parte hartu zuen.

Etorkizunean senarra izango zenarekin ezkongai-harremanetan hasi zen hamabost urterekin .Hogeita lau urterekin ezkondu zen, lana utzi zuen eta Bilbora berarekin joan zen bizitzera. Hasieran, hainbat laguni ospatu ematen zion izeko baten etxean bizi ziren eta egoera ekonomika hobetuz joan zenean berezko etxea izan zuten. Bi seme dauzka.

### **ARANTXA IDIAZABAL, Gainza (Gipuzkoa), 1945**

Ama herriaren maisua zen eta aita nazionalista militantea. Nerabeen, Errenteriara bizitzera joan zen, lehenengo izeko baten etxera batxilergoa ikasteko joan zen eta gero, izekok etxez aldatu zuenean, familiaren etxera. Maisu-maistra ikasi zuen eta ikastaroen azken urtean ikastolako mugimenduari hurbildu zen (mugimendu

horretan aita ere oso sartuta zegoen). Diplomatu bezain laster, Errenteriaren ikastolan klaseak emateko eskaini zuen bere burua. Ikastola zuzendu zuen eta han aritu zen erretiroa hartu arte.

### **AVELINA JÁUREGUI, Obanos (Nafarroa), 1927**

Familia sozialistaren barruan jaio zen. Ramón Jáuregiaren arreba nagusia da. Bederatzi urte zuenean, erreketek kontrolatuta zegoen alde batean ezustean gerrak harrapatu zuen. Herri osoan zekiten aitak sozialismoa begikoa zuela. Izan ere, maiz, batzuek herriko etxea deitzen zioten koinataren etxera joaten zen. Egoera jasanezina izan zenean eta aitaren bizia arriskuan zegoen, Gipuzkoara joan ziren. Avelinak, hamar neba-arrebako familiako nagusia zenak, bizitzari aurre egin behar izan zion. Aitaren ikasbide baita mentalitateari ere jarraituz hazi zen. Ezkondu eta gero, josteko tailerra ireki zuen. Horretaz baliatzen zuen modu askean langileekin mintzatzeko. Han, konturatu zen emakume guztiek ez zutela berea bezalako balioen hezkuntza jaso. PSOE legeztatu ondoren, alderdikide egin zen eta hasieratik konpromisua hartu zuen. 1979ko hauteskundeak egindakoa, Errenteriako Udalean zinegotzia izan zen urte batzuk. Aldi berean lan-sozialetan ere, auzo elkartetan, jubilatutako elkartetan, Herriko Etxean, eta abarrean.

### **CELIA MAESO MIGUEL, Barakaldo (Bizkaia), 1930**

Lau seme-alabako familiako hirugarren alaba da. Maria Luisak, bera baino askoz urte gehiago zeukan ahizpa nagusiak, eragin handia zuen Celiaren haurtzaroan. Bizitza osoa Barakaldoko aldean pasatu du. Amak familia-batasuna apur zedin nahi ez zuenez, gerran zehar ez ziren herritik joan. Aitak, errepublikano ezkertiarra zenak, espetxe-pena jasan zuen, baina irtendakoan, halako erraztasun batekin bere bizitza laborala berregin ahal izan zuen, Labe Garaietan ezagutu zituen lankide ohien abalei esker.

Celiak Elizarekin konpromiso handia du, gaztetan *Hijas de la Cruz* ikastetxean ikasi zuen eta *Hija de Maria* izan zen. Senarra ere Salesianos erakunde erlijiosoan sartuta egon zen. Sires jostundegian, pila lehorretan, eta Cucholen lan egin zuen. baina



ezkondutakoan lana utzi zuen etxean aritzeko.

### **MARIVÍ MARAÑÓN, Villacomparada de Medina de Pomar (Burgos), 1943**

Marivík Villacomparadan eta Medidan pasatu zuen haurtzaroa. Hamar urte zuenean familia Bilbora bizitzera joan zen eta aldaketa hori berarentzat izugarria izan zen. Hamabi urterekin ikasketak eten behar izan zituen etxera beste soldata bat eramateko, horregatik, BBKren haurtzandegi batean lanean hasi zen. Hamalau urte izan arte ez zuten langilerik aseguratzen uzten, baina beharragatik bultzatuta aseguru barik lan egin zuen. Handik gutzira, amak Marivik brodatzen ikas zezan nahi izan zuen. Amaren ideia zen alaba bakoitzak besteekin bateragarria izango zen ogibide bat ikas zezan lortzea gero etxean elkarrekin lan egiteko, baina brodatua ez zen Mariviren gustukoa. Mekanografia ikasi nahi zuen eta *Sección Femenina*-ra hurbildu zen, baina klaseak ondo ematen ez zituztenez, akademia pribatu batera abiatu zen. Takigrafia eta mekanografia amaitutakoan, bulegoetan hasi zen lanean, eta aldi berean, institutu zentrolean batxilergoa ikasten zuen. Talde katolikoetan eta *Hijas de María*-n egon zen, baina batez ere *Juventud Obrera Cristiana*-n sartuta zegoen. *Juventud Obrera Cristiana*-n militantziagatik, hala euskal talde nazionalistekin, nola langilezaleekin kontaktua izan zuen eta gero eta gehiago sartu zen EMKren orbitako politikan.

Apaiz langileekin harreman onak izateak ikasketak uztera eta militantzian arreta jartzera eraman zituen. Bere lana eskuzko baten truke aldatu zuen eta Komisio Langileak antolatzen hasten zirenean borroka sindikaletan dena eman zuen. Hainbat gatazkatan parte hartu zuen, Banda-Greban adibidez. Bere jarduera militantearen ondorioz, klandestinoki Bartzelonan ezkutatzera joan behar izan zuen momentu hartako senarra zenarekin eta alabarekin Urteen poderioz, zenbait erakundetan egon arren, borroka feministan askoz gehiago sartuta dago.

### **MARÍA GLORIA ORTIZ MORENO, Bilbo (Bizkaia), 1944**

Bere gurasoek ideologia errepublikanoa, sozialista hain zuzen ere, zuten. Gerraren ondoren aita preso egon zen Santoñan, hiru urtetan. Aitak haiengandik

urrundako bizitza bohemiarrak eramaten zuenez, amak hazi zuen. Pairatu zituzten gabeziek eta amaren nortasunak eragin handia zuten Gloriaren haurtzaroan. Amak, langilea zenak, apopilotzaz eta enkarguzkoz joskintzaz baliatuz familia aurrera atera zuen. Hamabost urte zituenean, gaur egungo egun senarra dena ezagutu zuen eta askoz zoriontsuago bizitzen hasi zen. Lagun-koadrila aldatu zuen eta dantza talde batera joaten hasi zen.

Gloria beti bizi izan da amarekin. Gaztaroko urte batzuetan hainbat lanetan aritu zen, baina lekua non urte gehienak eman zituen *Fundiciones Ituarte* izan zen. Han, nagusi baten idazkari lan egiten zuen. Trantsizioan zehar, UGTren bitarteko sindikala jokatu zuen. Ez zion lan egiteari utzi erretirora arte. Baditu seme bat eta alaba bat – nahiz eta hirugarren bat erditzean galdu- eta ahalegindu da eurek hezten antzeko eran eta askatasunerako.

### **MARÍA ROSARIO LUCÍA OTXOA, Bilbo (Bizkaia), 1945**

Charo Otxoa euskal familia nazionalista baten altzoan jaio zen. Bai aita, bai aitona gartzelan egon ziren gerra ostean. Bilboko Udalean zinegoitzia izan zen Abando aldean.

Haurtzaroa, zazpi urte izan arte, Errekaldean, amonaren baserrian pasatu zuen. Neba bikiak jaio zirenean Bilbora joan ziren bizitzera. Aitak Merkataritza ikasi zuen eta *Seguros La Polar*-ren egiten zuen lan. Familiaren egoera ekonomikoa ona zenez etxea erosi zuen Bilbon Doctor Areilza Zumarkalean. Charok Ikasteko aukera izan zuen, lehenengo, Errekaldeko ikastetxean, gero, Bibon *Colegio del Pilar*-ren eta azkenik, peritu kimiko ikasketak egin zituen.

Nahi izanagatik, ezin izan zuen ogibide horretan jardun. Hiru alaba eta seme bakarra ditu eta seme-alabak arduratzeaz gain, talde katoliko batzuetan sartuta dago.